TOLOSAKO UDALA

2026IGBA0023

# EZ-OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

**2026.05.29**

**Alkatea:**
**Angel Martinez de Rituerto Arregui**

**Bertaratutako zinegotziak:**
**Ander Figuerido Zubiria**
**Cristina Pelaez Errazquin**

**Ez da bertaratu:**
**Goiuri Eceiza Arandia**
**Aitor Aguirresarobe Murgui**
**Miren Yosune Sanz Vidal**

**Udal idazkaria:**
**Sara Berasategui Fuertes**

**Kontu-hartzailea:**
**Marta Alonso Sarasola**

**Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita seiko maiatzaren hogeita bederatzian, 12:00etan, bigarrengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ez ohiko eta presazko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:**

## EBAZPEN ATALA

1. **Onartzea, hala badagokio, Autobuses Cuadra, S.A. enpresak Tolosako bidaiarien hiri-garraio kolektiboko zerbitzu-kontratuaren jarraipena, aldi baterako eta salbuespenezko izaerarekin.**

   **Espedientearen kodea: 2020SABI0001**

ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a

1. **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, AUTOBUSES CUADRA, S.A. ENPRESAK TOLOSAKO BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO KOLEKTIBOKO ZERBITZU-KONTRATUAREN JARRAIPENA, ALDI BATERAKO ETA SALBUESPENEZKO IZAERAREKIN.**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA.-** 2021eko ekainaren 1ean Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua sinatu zen AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258) enpresarekin. Kontratuaren iraupena bost urtekoa zen amaiera data 2026ko maiatzaren 31a izanik, ez zen luzapenik aurreikusten. Gaur egun kontratuaren baldintza ekonomikoak honakoak dira: 24.971,98 €, BEZik gabe, eta 2.497,20 euro BEZagatik, 27.469,18 euro guztira.

**BIGARRENA.-** 2026ko otsailaren 26ko udalbatzak onartu zuen Tolosako Hiri garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuaren espedienteari hasiera ematea. Aipatu behar da lizitazioa prestatzeko, zerbitzuaren garrantzia dela eta, espezialista bat kontratatu zela. Lizitazioa 2026ko otsailaren 27an bidali zen kontratazio profilean argitaratzeko; baina, plataformako zenbait arazo direla eta, lizitazioa ez zen 2026ko martxoaren 1a arte argitaratu.

**HIRUGARRENA.-** 2026ko apirilaren 8an eskaintzak aurkezteko epea amaitu zen lizitatzailerik aurkeztu gabe. Hori dela eta, lizitazioa hutsa deklaratu zen eta udala lizitazio berria ahalik eta azkarren prest edukitzeko lanean jarri zen. Hala ere, indarrean zegoen kontratua amaitu baino lehen kontratu berria formalizatzea ezinezkoa izango zela ikusita, eta SPKLko 29.4 artikuluan oinarrituta, lizitatzaileari zerbitzua ematen jarraitzeko esan zitzaion kontratu berria esleitu arte, eta gehienez ere 9 hilabeteko iraupenarekin, aurreko kontratuaren baldintza berdinetan.

**LAUGARRENA.-** 2026ko maiatzaren 19an kontratistak berraztertze errekurtsoa jarri zuen 29.4 artikuluan oinarritutako jarraipena deuseza zela argudiatuz. Horretarako, beste zenbait gauzen artean, lizitazio berriaren argitaratze datari egiten zion erreferentzia.

**ANTECEDENTES**

**PRIMERO.-** Que con fecha 1 de junio de 2021 se suscribió un contrato de servicios para la gestión del servicio público de transporte colectivo urbano de Tolosa con la empresa AUTOBUSES CUADRA, S.A. (A-01018258). La duración del contrato era de cinco años y la fecha de finalización era el 31 de mayo de 2026, no se preveía ninguna prórroga. Las condiciones económicas del contrato actualmente son de 24.971,98 € IVA excluido y de 2.497,20 € IVA, con un total de 27.469,18 €.

**SEGUNDO.-** El Pleno Municipal en sesión celebrada el día 26 de febrero de 2026 aprobó la iniciación del expediente del contrato de gestión del servicio público de transporte colectivo urbano de Tolosa. Cabe señalar que para la preparación de la licitación, dada la importancia del servicio, se contrató a un especialista. La licitación fue enviada para su publicación en el perfil de contratación el 27 de febrero de 2026; sin embargo, debido a ciertos problemas en la plataforma, la licitación no fue publicada hasta el 1 de marzo de 2026.

**TERCERO.-** Con fecha 8 de abril de 2026 finalizó el plazo de presentación de ofertas sin que se hubiera presentado ningún licitador. Por ello, se declaró desierta la licitación y se puso a trabajar para que la nueva licitación estuviera lista lo antes posible. No obstante, ante la imposibilidad de formalizar un nuevo contrato antes de la finalización del vigente, y en base al artículo 29.4 de la LCSP, se indicó al licitador que continuara prestando el servicio hasta la adjudicación del nuevo contrato, con una duración máxima de 9 meses, en las mismas condiciones que el contrato anterior.

**CUARTO.-** Con fecha 19 de mayo de 2026 el contratista interpuso recurso de reposición en base al artículo 29.4, alegando la nulidad de la continuidad. Para ello, entre otras cosas, se refería a la fecha de publicación de la nueva licitación. El contratista alega que no se ha

ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a

Kontratistak argudiatzen du ez dela lizitazio berria 3 hilabeteko aurrerapenarekin argitaratu izanaren betekizuna bete. Izan ere, lizitazio iragarkia otsailaren 27an bidali arren, martxoaren 1a arte ez zen argitaratu kontratatzailaren profilean Plataformako arazo batzuengatik.

cumplido el requisito de haber publicado la nueva licitación con 3 meses de antelación. De hecho, aunque el anuncio de licitación fue enviado el 27 de febrero, no fue hasta el 1 de marzo cuando se publicó en el perfil de contratante por algunos problemas de la Plataforma.

Udalak, lizitazioa publikatzera otsailaren 27an bidali zenez, ulertzen zuen betetzen zela 29.4 artikuluak exijitzen duena: 3 hilabeteko aurrerapenarekin lizitazio berria publikatu izana. Aldiz, KEAOren 179/2025 ebazpenak dio 29.4 artikuluak "publikatu izana" exijitzen duela, eta, hortaz, ez duela balio lizitazioa publikatzera bidali zen datak, baizik eta benetan kontratua publikatu zen datak.

El Ayuntamiento, como se envió a publicar la licitación el 27 de febrero, entendía que se cumplía lo exigido en el artículo 29.4: que se hubiera publicado la nueva licitación con 3 meses de antelación. En cambio, la resolución 179/2025 del ROC señala que el artículo 29.4 exige que se "haya publicado", por lo que no vale la fecha en que se envió a publicar la licitación, sino la fecha en que realmente se publicó el contrato.

Nahiz eta Plataformako arazoa ezin zaion Udalari egotzi, kontratistari ere ez. Hortaz, KEAOren doktrinan oinarrituta, berraztertze errekurtsoa onartu zaio kontratistari eta luzapena deusez deklaratu.

Aunque el problema de la Plataforma no es imputable al Ayuntamiento, tampoco al contratista. En consecuencia, en base a la doctrina de la AGE, se estima el recurso de reposición al contratista y se declara la nulidad de la prórroga.

**BOSGARRENA.-** Kontratistak errekurtsoan eta kontratuaren arduradunaren bitartez Udalari adierazi dio zerbitzua kontratu berria esleitu arte eta, gehienez, 2027ko maiatzaren 31ra arte gauzatzeko prest egongo litzatekeela, betiere prezioa bideragarri egin arte eguneratzen bada. Kontratuaren arduradunak txosten teknikoa egin du zerbitzuaren beharra justifikatuz eta prezioa bideragarri egite aldera aurkeztu duten eskaintzari buruz.

**QUINTO.-** El contratista ha manifestado en el recurso y a través del responsable del contrato al Ayuntamiento que el servicio se prestaría hasta la adjudicación del nuevo contrato y como máximo hasta el 31 de mayo de 2027, siempre que el precio se actualice hasta su viabilidad. El responsable del contrato emite informe técnico justificando la necesidad del servicio y sobre la oferta presentada para hacer viable el precio.

**SEIGARRENA.-** Hori guztia kontuan izanda, jarraian azaltzen dira jarraipen horren oinarri juridikoak.

**SEXTO.-** Que a la vista de todo ello, se exponen a continuación los fundamentos jurídicos en los que se sustenta dicho seguimiento.

**ARAUDI APLIKAGARRIA**

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak. (Aurrerantzeank SPKL)

**NORMATIVA APLICABLE**

- La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se incorporan al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014. (En adelante LCSP)
-El Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las

ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a

- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua (Aurrerantzean, kontratazioko erreglamendua)
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea

Administraciones Públicas (en adelante Reglamento de Contratación)
-Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local
-Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi

**OINARRI JURIDIKOAK**

**LEHENENGOA.-** SPKLko 29.artikuluak arautzen du kontratuen iraupena eta, besteak beste, dio ez dela onartzen kontratuaren luzapen tazitoa. Hitzartutako epea igaro ondoren, kontratua iraungi egiten da, eta ez du ondoriorik sortzen.

Hori dela eta, kontratazio organoak diligenteak izan behar direla diote Aholku Batzorde desberdinek eta garrantzi handia ematen diote 28.4 artikuluak aurreikusten dituen kontratazio jardueraren programazio eta planifikazioari.

Kasu honetan kontratazio organoak diligentziaz jokatu du, izan ere, 2026ko kontratazio planean sartuta dago kontratua eta kontratazio organoak 2026ko otsailaren 26an onartu zuen Tolosako bidaiarien hiri garraio kolektiboaren zerbitzu kontratuaren espedienteari hasiera ematea. Lizitazioa hurrengo egunean bertan, 2026ko otsailaren 27an, bidali ziren argitaratzera. Gainera, aipatzekoa da kontratuaren konplexutasuna kontuan hartuta, garraioetan espezializatutako aholkularitza-enpresa bati esleitu zitzaizkiola preskripzio teknikoen pleguen idazketa eta balorazio ekonomikoa (Ingenieria sostenible y seguridad vial Dómina 21 SLU).

**BIGARRENA.-** Luzapen tazitoak ez direla onartzen aipatu bada ere, 29.4 artikuluak ezohiko neurri bat aurreikusten du, kontratu berri bat garaiz esleitzea eragozten duten inguruabarrak gertatzen direnean aplikatu daitekeena. Laugarren aurrekarian adierazi den gisan, kontratazio organoak neurri hau hartu bazuen ere hasiera batean, deusez deklaratu behar izan da ez direlako exijitzen dituen betekizun guztiak bete.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**PRIMERO.-** La duración de los contratos viene regulada en el artículo 29 de la LCSP , que entre otros aspectos señala que no se acepta la prórroga tácita del contrato. Transcurrido el plazo convenido, el contrato caduca y no produce efectos.

Por ello, las diferentes Juntas Consultivas manifiestan la necesidad de que los órganos de contratación sean diligentes y otorgan gran importancia a la programación y planificación de la actividad de contratación prevista en el artículo 28.4.

En este caso el órgano de contratación ha actuado con diligencia, ya que el contrato está incluido en el plan de contratación de 2026 y el órgano de contratación aprobó el 26 de febrero de 2026 la iniciación del expediente del contrato de servicios de transporte colectivo urbano de viajeros de Tolosa. La licitación fue enviada a publicar al día siguiente, 27 de febrero de 2026. Además, cabe destacar que dada la complejidad del contrato se adjudicó la redacción de los pliegos de prescripciones técnicas y la valoración económica a una consultora especializada en transportes (Ingenieria sostenible y seguridad vial Dómina 21 SLU).

**SEGUNDO.-** Sin perjuicio de la mención de la no aceptación de las prórrogas tácitas, el artículo 29.4 prevé una medida extraordinaria que podrá aplicarse cuando concurran circunstancias que impidan la adjudicación a tiempo de un nuevo contrato. Como se ha indicado en el antecedente cuarto, esta medida fue inicialmente adoptada por el órgano de contratación, pero ha debido ser declarada nula por no haberse cumplido todos los requisitos exigidos.

ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a

Baldintzak argiak direnez, kontratazio organoak ezin du 29.4ko ezohiko neurria erabili, nahiz eta, aurrekariak kontuan izanda, administrazio diligente batek behar duen arduraz jokatu dela ondorioztatu daitekeen. Izan ere, lizitazioa 3 hilabeteko aurrerapenarekin ez argitaratu izana Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman izandako akats baten ondorio da eta ez Udalaren diligentzia faltari egozgarria den akats baten ondorio.

Dado que las condiciones son claras, el órgano de contratación no puede recurrir a la medida extraordinaria del 29.4, aunque de los antecedentes se desprende que se ha actuado con la debida diligencia por parte de una administración diligente. De hecho, la no publicación de la licitación con 3 meses de antelación se debe a un error en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi y no a un error imputable a la falta de diligencia del Ayuntamiento.

**HIRUGARRENA.-** Horiek horrela, legeak ez du horrelako kasuetarako bestelako aukerarik aurreikusten zerbitzu kontratuetan. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen zenbait txostenek, besteak beste, 42/2014, 86/2018 eta 17/2020 Txostenak, onartzen dute, salbuespen gisa eta zerbitzuaren jarraipena bermatzeko, prozedura arinagoetara jotzea, hala nola kontratu txikira, prozedura ireki sinplifikatura edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatura, lizitazio arrunt bat garaiz amaitzea ezinezkoa denean. Kasu honetan, ez dira aukera bideragarriak, alde batetik, kontratuaren zenbatekoarengatik eta, bestetik, prozedura horien iraupenagatik.

**TERCERO.-** Que, por tanto, la ley no contempla otra posibilidad para estos casos en los contratos de servicios. Diversos informes de la Junta Consultiva de Contratación Pública del Estado, entre los que se encuentran los Informes 42/2014, 86/2018 y 17/2020, admiten que, excepcionalmente y para garantizar la continuidad del servicio, que se recurra a procedimientos más ágiles, como el contrato menor, el procedimiento abierto simplificado o el procedimiento negociado sin publicidad, cuando no sea posible concluir a tiempo una licitación ordinaria. En este caso, no son opciones viables, por un lado, por la cuantía del contrato y, por otro, por la duración de dichos procedimientos.

**LAUGARRENA.-** Zerbitzu kontratuetarako bestelako neurririk aurreikusten ez bada ere, komeni da legeak zerbitzu emakiden atalean jasotzen duen 288.a) artikuluko azken lerroa hona ekartzea, analogikoki aplika daitekeena: *"Kontratua azkentzen bada kontratua bete delako, kontratistak zerbitzua ematen jarraitu beharko du kontratu berria formalizatu arte."*

**CUARTO.-** Aunque la ley no contemple otra medida para los contratos de servicios, conviene mencionar la última línea del artículo 288.a) que la Ley recoge en el apartado de concesiones de servicios, que podría aplicarse de forma analógica: *"Cuando el contrato se extinga por cumplimiento de contrato, el contratista deberá continuar prestando el servicio hasta la formalización del nuevo contrato"*

Nahiz eta artikulu hori zerbitzu emakiden atalean egon, bere edukiak zerbitzu publikoen jarraipenaren printzipio orokorrari erantzun nahi dio, eta hau analogikoki aplikagarria izan daiteke zerbitzu kontratuetan, bereiziki oinarrizkoak eta ezinbestekoak diren zerbitzuak direnean.

Si bien este artículo se encuentra incluido en la sección de concesiones de servicios, su contenido pretende responder al principio general de continuidad de los servicios públicos, lo que puede ser aplicable analógicamente a los contratos de servicios, especialmente cuando se trata de servicios esenciales e indispensables.

Kontuan izan behar da zerbitzu-kontratuen eta zerbitzu-emakiden arteko egungo bereizketa nahiko berria dela. Tradizioz zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua zena

Debe tenerse en cuenta que la actual distinción entre contratos de servicios y concesiones de servicios es relativamente nueva. Desaparece lo que tradicionalmente

ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a

desagertu egin da eta kategoria horren azpian sartzen ziren kontratuak zerbitzu kontratu edo zerbitzu emakida kontratu izan daitezke, eragiketa-arriskua transferitu den ala ez kontuan hartuta.

era el contrato de gestión de servicios públicos y los contratos que entraban bajo esta categoría pueden ser contratos de servicios o de concesión de servicios, dependiendo de si se ha transferido o no el riesgo operacional.

Horrek esan nahi du zerbitzu publiko bera figura baten edo bestearen bitartez kontratatu daitekeela, hargatik zerbitzu publikoko izaera galdu gabe. Horregatik, funtsezko zerbitzu publikoek duten zerbitzuaren jarraipen printzipioa mantentzen dela esan daiteke zerbitzu kontratu bidez gestionatzeko erabakia hartuta ere.

Esto significa que un mismo servicio público puede ser contratado a través de una u otra figura, sin que por ello pierda su condición de servicio público. Por ello, el principio de continuidad del servicio en los servicios públicos esenciales se mantiene incluso cuando se opta por un contrato de servicios.

**BOSGARRENA.-** Kontratuaren arduradunak txosten teknikoan adierazi du: alde batetik, Tolosako bidaiarien hiri garraio kolektiboaren zerbitzuak betetzen duen interes publikoa, eta bestetik, IIngenieria sostenible y seguridad vial Dómina 21 SLU” enpresak egindako azterketaren arabera AUTOBUSUS CUADRA S.Ak aurkeztutako prezio berriak, 370.950,88€ alegia, merkatuaren araberakoa dela.

**QUINTO.-** El responsable del contrato ha manifestado en el informe técnico: por un lado, la existencia de interés público del servicio de transporte colectivo urbano de viajeros en Tolosa y por otro, que la empresa “Ingenieria sostenible y seguridad vial Dómina 21 SLU” manifiesta en el informe presentado para el análisis de los nuevos costes presentados por AUTOBUSES CUADRA S.A. de 370.950,88€ es acorde al precio de mercado.

Kasu honetan, gainera, elementu garrantzitsu bat dago zerbitzuaren jarraipen printzipioaren nagusitasuna justifikatzeko: bidaiarien hiri garraio publiko kolektiboaren funtsezko izaera. TAOLko 86.2 artikuluak berariaz adierazten du “bidaiarien garraio publikoa” funtsezko jarduera edo zerbitzua dela. Aurreikuspen horrek agerian uzten du legegileak garrantzi berezia ematen diola prestazio horri behar kolektiboak asetzeko eta interes orokorra babesteko, ezinbesteko tresna baita herritarren mugikortasuna eta udalerriko bizitza ekonomiko eta sozialaren funtzionamendu normala bermatzeko.

En este caso, además, hay un elemento importante que justifica la primacía del principio de continuidad del servicio: el carácter esencial del transporte público colectivo urbano de viajeros. El artículo 86.2 LBRL señala expresamente que el “transporte público de viajeros” es una actividad o servicio esencial. Esta previsión pone de manifiesto la especial relevancia que el legislador otorga a esta prestación para satisfacer las necesidades colectivas y salvaguardar el interés general como instrumento indispensable para garantizar la movilidad de los ciudadanos y el normal funcionamiento de la vida económica y social del municipio.

**SEIGARRENA.-** Prezioaren eguneraketa eskatzen du enpresak. Horri dagokionez, lehenik eta behin kontratazio arloko hainbat tribunalek (besteak beste Aragoikoak 118/2025 akordioan) arrisku eta menturaren printzipioaren inguruan adierazten dutena aztertu behar da. Adierazten dute behin jatorrizko kontratuaren iraupena amaitutakoan arrisku eta menturaren obligazioa amaitzen dela. Hori dio

**SEXTO.-** La empresa solicita la actualización del precio. A este respecto, en primer lugar se debe analizar lo que diversos tribunales en materia de contratación (entre ellos el de Aragón en el acuerdo 118/2025) expresan en relación con el principio de riesgo y ventura. Manifiestan que una vez finalizada la duración del contrato original, finaliza la obligación del riesgo y ventura. Así lo dice la sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Andalucía de 3 de junio de 2024:

ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a

Andaluziako Auzitegi Nagusiaren 2024ko ekainaren 3ko epaiak:

*"(…) La administración obliga al contratista a algo a lo que inicialmente no se había obligado; y lo hace en virtud de su ius variandi o factum principis, según la demandante. Pero las consecuencias no pueden ser que el contrato, durante el tiempo de duración de esas prórrogas, deba seguir inalterado, sin la compensación necesaria derivada de las pérdidas que acredite el contratista que ha sufrido. Es claro que el contrato se hace a riesgo y ventura; pero también lo es que dicho principio solo debe regir durante el tiempo en que la partes son conformes en la duración del contrato. Durante las prórrogas forzosas, el contratista debe ser indemnizado si acredita que, solo por continuar con el contrato de manera forzosa, ha sufrido pérdidas que no podía prever, y que por ello, no se compensan con el precio del contrato, establecido para un periodo concreto de tiempo ya superado; y cuando dichas pérdidas, además de no previsibles, son excepcionales como veremos más adelante.*
*De aceptarse la tesis de la administración el contratista estará soportando la carga de la aplicación de una norma que le impone unas obligaciones más allá de lo que es la voluntad de las partes manifestada en un contrato."*

Hori dela eta, aipatutako 118/2025 akordioak dio bidegabe aberasteko printzipioaren baitan egokia dela prestazioaren balio errealaren ordainketa eskatzea. Izan ere, prestazioak berdina izaten jarraitzen badu ere, kontratuak iraun duen 5 urteetan nabarmen aldatu daiteke kontratuaren erregimen ekonomikoa.

Por ello, el citado Acuerdo 118/2025 establece que, en el marco del principio de enriquecimiento injusto, procede exigir el abono del valor real de la prestación. Y es que, aunque la prestación sigue siendo la misma, el régimen económico del contrato puede variar considerablemente en los 5 años que ha durado el contrato.

Kasu honetan, txosten teknikoan adierazten da nabarmen aldatu dela kontratuaren erregimen ekonomikoa, beste arrazoi batzuen artean, bereziki, langileei aplikatzen zaien lan hitzarmena aldatu delako.

En este caso, en el informe técnico se señala que se han producido variaciones de gran envergadura en el régimen económico del contrato, entre otras causas, debido fundamentalmente a la modificación del convenio laboral aplicable a los trabajadores.

Ogasun Ministerioaren Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen 31/2017 txostenak ere zentzu horretan honakoa dio:

En este sentido, el informe 31/2017 de la Junta Consultiva de Contratación Administrativa del Ministerio de Hacienda señala que:

*"De este modo, si por causas excepcionales, durante el periodo imprescindible para paliar esa situación excepcional, y atendiendo a la necesidad de garantizar la continuidad en la prestación del servicio, se justifica que se prolongue la prestación del contratista, éste deberá ser adecuadamente retribuido, especialmente en el supuesto de que se altere el equilibrio económico en detrimento del contratista, el cual deberá restablecerse adecuadamente para subvenir a las necesidades que plantee la prestación del servicio en este periodo. Tal prestación excede del contenido del riesgo y ventura asumido por el contratista conforme al contrato ya extinguido y, por ello, es claro que no tiene que soportar las consecuencias económicas de una situación no imputable a él y que va más allá del contrato en los términos pactados.*
*Por esta razón, el principio de riesgo y ventura propio del contrato de gestión de servicios públicos debe ser, en definitiva, modulado para este periodo que, lógicamente, debe ser transitorio y excepcional, por el tiempo que resulte necesario para que el nuevo concesionario asuma la prestación del servicio público en el nuevo contrato."*

ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a

Jasangarritasuna, Ingurumena, Landa Garapena eta Trantsizio Energetikoko teknikariaren txostena ikusirik.
Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondareako teknikariaren txostena ikusirik.
Kontu Hartzailearen txostena ikusirik.
2020SABI0001 espedientea Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena da. Beraz, aurrekoa ikusita, honako hau jasotzen da:

Visto el informe técnico de Sostenibilidad, Medioambiente, Desarrollo Rural y Transición Energética.
Visto el inform técnico de Secretaría General, Contratación y Patrimonio.
Visto el informe ténico de la Interventora.
El expediente 2020SABI0001 es competencia de la Junta de Gobierno Local. Por lo tanto y visto lo anterior, se eleva la siguiente:

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, Gobernu Batzar honek, alkateak emandako ahalmenez baliatuta aho batez onartzen du honako

Por todo lo anterior, esta Junta de Gobierno, en uso de las facultades conferidas por el Alcalde, adopta por unanimidad el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Kontratazio-organoak diligentzia egokiz jokatu duela adieraztea. Kontuan hartzea egoerak direla eta ezin dela beste prozedura batera jo, eta zerbitzuaren izaerak zerbitzu publikoaren jarraipen printzipioa kontratazio publikoaren printzipioen gainetik jartzea justifikatzen duela.

**PRIMERO.-** Declarar que el organo de contratación ha actuado con la diligencia adecuada. Considerar que debido a las circustancias no es posible acudir a otro procedimiento y que la naturaleza del servicio justifica la aplicación del principio de continuidad del servicio público por encima de los principios de contratación pública.

**BIGARRENA.-** Zerbitzuaren funtsezko zerbitzu publikoaren izaera eta betetzen duen interes publikoko funtzioa kontuan hartuta, AUTOBUSES CUADRA, S.A. enpresak Tolosako bidaiarien hiri-garraio kolektiboko zerbitzu-kontratuaren jarraipena onartzea, aldi baterako eta salbuespenezko izaerarekin, eta kontratista berriak zerbitzu publikoaren prestazioa bere gain hartu arte kontratu berria formalizatuz edo gehienez 2027ko maiatzaren 31ra arte.

**SEGUNDO.-** Dada la naturaleza de servicio público esencial del servicio y la función de interés público que desempeña, aprobar la continuación del contrato de servicios de transporte colectivo urbano de viajeros de Tolosa, por AUTOBUSES CUADRA S.A. con caracter transitorio y excepcional, y por el tiempo que resulte necesario para que el nuevo contratista asuma la prestación del servicio público mediante la formalización del nuevo contrato o como máximo hasta el 31 de mayo de 2027.

**HIRUGARRENA.-** Onartzea aldi baterako eta salbuespenezko izaera duen zerbitzu kontraturen gastua, printzipala 336.970.93 €/ urteko + % 10eko BEZa, hau da, 370.668,02 €/urteko, hurrengo aurrekontu-partidaren kargura: 1.300.223.01.441.10 2026.

**TERCERO.-** Aprobar el gasto del contrato de servicios de caracter transitorio y excepcional, por importe de un principal de 336.970.93 €/año + 10% IVA, lo que asciende a un total de 370.668,02 €/año, con cargo a la siguiente partida presupuestaria: 1.300.223.01.441.10 2026.

**LAUGARRENA.-** Alkateari kontratua sinatzeko ahalmena ematea.

**CUARTO.-** Facultar al alcalde para la firma del contrato.

**BOSTGARRENA.-** Akordioa AUTOBUSES CUADRA, S.A. enpresari jakinaraztea.

**QUINTO.-** Notificar el acuerdo a AUTOBUSES CUADRA, S.A.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:15ean.**

**ALKATEA**

**UDAL IDAZKARIA**

**EKS | CSV: ESKU8fba560d-ac60-428e-80d0-95dfa2eb840a**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2026IGBA0023-2026-05-29 akta/2026-05-29 akta () |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

**Sara Berasategui Fuertes**
**Udal idazkaria**
**Data:** 2026/06/01 12:14:35

**Digitalki sinatua:**

**Angel Martinez de Rituerto Arregui**
**Alkatea**
**Data:** 2026/06/01 12:19:56